

## PAUL CEZANNE, BERE LANEZ ETA ERAGINEZ

*J. San Martin*

Aix-en-Provence hiriko kaleetan, Rilkek zionez, haurrak inoiz harrika egin zioten gizona, lebitaz eta bonbinez jazten zen pintore bitxiaren lanak aurtengo martxo-apirilean Madrid-eko Museo Español de Arte Contemporáneo delako aretoetan publikoki erakusteko jarri ziren. Zalantzarik gabe, 1984. urtean Espainian egin den arte erakusketarik garrantzitsuen.

Paul Cézanne (1839-1906) Parisko impresionisten eta mende hontako abangoardien artean pintorerik garrantzitsuen da. Arrazoiz esan ohi da XX. mendeko pinturaren aita dela. Bere eraginaren ondorioz sortu bai ziren gure mende hontako «fauve», kubismoa eta joera bion artetik piztu zen giroa, artistak bere nortasunezko sorketa bideak bakoitzak libertate osozko joeraz erabiltzeko. Hala ere, ez uste bere obra muga bageko zerbait denik, ez. Ber berak jarri bai zizkion erregela aski estuak bere buruari.

Cézannek urratu zituen bideak heurak ez pentsa guztiz edo zeharo aintzitik aztertuak eta ikertzailearentzat agortuak direnik. Denborak aurrera ere, egungo gazteek beti ikasten dute zerbait bere lanak ikusteaz eta aztertzeaz. Eginalak egin, bere plastika kontseptuetarik beti gelditzen bait da zerbait ez-kutuan.

Haurtzarotik Emile Zola idazlea eskolakide eta adiskide zuen, eta, pintore izango zenak barnetik zekarren kezka, eleberrigileak bultzarazi zion. Camille Pissarro-en adiskidetasunez sartu zen Parisko inpresionisten artean, hogetabi urte baizik ez zituelarik. Hasiera batean, haiek baino gaztetxoagoa bazen ere, berengana inguratu zen eta estiloz ere beraiei loturik. Esan beharrezkoa da garai hartan Parisko Arte Eder Eskolara sartzetik ez zuela izan, esaminak pasatu ezinez. Baina, horregatik, ez zen ordea Louvre-ko Museotik pasatu gabea. Bere kabuzko ikasketak han egin bai zituen eta ondoreak erakusten digunez ez zen nolana hiko autodidakta izan. Lehenagoko pintoreen obrak azagaturik, inpresionismoa bera arte mailan goian jarri eta iraunarazteko beharrezko iduritzen zitzaion sendotasunaren bila hasi bai zen, bere garaiko haien eta museoetako obren artean nolabaiteko oerka eta lotura nahian eta ikerketen ondorioz era berri bat sortzera iritsi zen. Horrek jartzen du postinpresionista eta prekubismoaren bitarte hortako jenio bezala. Baina, hain zuzen, horrek eroan zuen bere garaiko artista eta jendearen artean ulertezinezkoa izatera.

Hogtahamaika urte beteak zituen franko-prusiar gerratea (1870) lehertu zenean eta une haretan markatu zuen bere arte lanen lehen aldaketa nagusia. Lehenagoko gaiak eta espatularen urduritasun hura baztertzen ditu, eta kontrol handiagoz jabetzen da lerroak hobeto markatuz eta argiak eta koloreak heurak hobeto baliatuz. Orain, kolorea bera formak erabakitzeko bitartekotzat hartzen bai du eta gaitzat hautatzen dituen gauzeri bolumena ematen dio. Bestalde, paisajeak, lehen baino gehiago erabiliko ditu. Guzti horregatik, inguruko artean lehen baino ulerkaltzago bihurtzen da. Eskerrak bere gurasoak dirudunak zituela eta bizitzaren mantenimendurako beharrik ez zuela aurkitzen, berari gogozko zitzaion eratik jarraitu zuen, gainerakoei lepoa eman eta pintura pintatze soilaren plazerrez harturik eten gabe segitu zuen esperientzia berrietatik.

Beste hamar urtean iraungo zuen ikuspegi berrien sorkundezko aurrera bidean. Hortarako, espirituz ez ezik, fisikoki ere bakardade gorrian aurkitu zuen bere burua. Inpresionismo estiloak heurak iraunkorrago egin nahizko bideetatik abiatu zen.

Urrats berrietatik sartu zen pintorea aski urruti joan zen bere langintzan. Kultura orokorrez ondo eskolatua zegoen, aintzina-ko klasikoen mundua ez ezik Pizkunde garaikoa eta barrokoa ere ongi ezagutzen zituen eta jakintza hori oso lagungarri zitzaion, zein bere bakardadeari hala bere artegintzari.

Arkitektura gisako konposaketari garrantzi handia emango dio. Era hortakorik ez zen falta Madrid-eko erakusketan, Sainte-Victoire mendiaren zenbait laukiz gainera han zeuden bañistekin egin zituen hainbeste saio. Azken horietan inoiz Rubens-en ritmoak nabari baditu ere, maizago agertzen zaigu konstruktibismoaren hastapena. Gainera, hor daude konposaketa berriaren beste era batzuk ere. Adibidez, lerroak zabaletara indartzeaz espazio berezia lortzea, eta behetik gorako marraz sakontasuna jarriaz. Oraindik etzen Kandinsky-rik ihesikako lerro, marra eta tartekako moteri holako baliorik emateko.

Geroko urteetan beti kontuan izango du lerro eta marren joko hau. Horren adibide ederrak ikusi ditugu Madrid-eko erakusketa honetan: Jas de Bouffan ingurua, toki bereko gaztañandia eta beste. Sakontasun nabarmena lortzeko beste teknika bat ere erabiltzen du, lerro eta marrarik zuzenean agertu gabe, baizik pintatuz itzal eta argien arteko jokoan sarturik adieraziaz; horren adibidezko da Mat Jolie-tik Château Noir-erako bidea, koloreen ordena armonia egokiz ipiniaz eta urrutia lausotuz. Joko gaidunen konposaketa ordea, Naturaleza hilak dir-elakoekin batean, konstruktibismoaren atariak jartzekoak dira.

Azken aldi hortan, koloreak, lehenago baino pintzelada labur eta finagoez formak beteaz erabiliko ditu. Horrez gainera, argien alternantziak laugarren dimentsioaren bila arituko zen, bolumena eta sakontasuna indar berezi batekin aterez. Hortik hurbil zeuden geroxeago sortuko ziren kubismoa eta konstruktibismoa, hortarako bideak idekirik utzi zituenez.

Inoiz espero gabe hainbeste lauki ikusteko aukera hartan, azkenerako mozkortua bezala aurkitu nintzen. Bata bestearen ondorean guziak behar bezala dastatzea ez bai zen posible. Han zen pinu handiaren laukia ere, bere atmosfera eta mugit-

mendu bereziaz, hain maite zituen berde-urdinez betea eta lurrean laranja gisako hori-gorri motaz biziturik.

Baina erakusketa eder horrek besterik ere eskaintzen zuen gure begi-nini eta gogo-begietara, bere dibujoak, gehienak ikatzez eginak, garbi, segurantz handiz buruaren aginduz eskua-  
ren trebetasunez eginak.

Pizkunde garaiko perspektibak, egia esan, manierismotik haruntza ez ziren joan eta Cézanne-k mundu horren ordenamendu berri baten legeak jarri zituen, ikuspegia zilindro, kono eta esferara errendituz, ez une berezi batean soilik, baizik lauki beraren orokortasunean ere bai. Eta, errenditu ere, sintesi batean sinplifikatuz. Horrek ez du ukatzen bere argietan Caravaggio eta ondorengo oroitzatzaile nabari ez denik. Baina, era orokorrean, estilo eta kontzeptu aldakuntzen muga, Cézanne, Botticelli-rekin parekatzekoa da, zeren hura bezala aurkitzen bai da Artearen historian, kasik inortxo ere ez bere aurretik eta ondotik jarraitzaile ugari, berak idekitako bideen jarraitzaile.

1895. urtean egin zuen erakusketan ideki zituen kritikoen eta artista gazteagoen begiak, baina heriotzaren ondorean jaso ziren aburuetatik hartu zuen aspaldiagotik merezia zuen ospea. Abangoardian zetozen artistak jabetu ziren bere hilburuko eta ondorioen agerik hor daude: Picasso eta Braque perspektibaz tradizio zaharreko kanonak etetzeaz eta gauzak deformatze tratamendutik zekarren indarrak bereganatuz ekin zioten era berri bati; Delaunay koloreen armoniaz txunditurik; Léger konstruktibismoaren oinarriak aurkituz; La Fresnaye bere klasizismoaz; Metzinger iraultzale irakasle aldetik; Matisse argien eta koloreen alternantziaz...; Bakoitzak bere arrazoiak aurkituz ekin zioten, mugak hautsiz, artearen aldi berri bati hasiera emateko.

Konforme gauden ala ez; hori beste gauza bat da. Baina, Artearen historian Cézanne-ri inork ukatu ezinezkoa da ikuspegi berrietarako ekarri zuen aldakuntza, artista bakoitzari bere nortasunezko sorketatik ihardutzeko askatasun osoa eskainiz.

Bere eragina guregana ere indartsu sartu zen, bere eren formalismo hutsera zeharo luturik gelditu bazen ere. Arteta

bera dugu adibiderik biziena. Eta honek bere inguruan eta gure egunokarte zer eskola utzi zuen denok dakigu. Gainera, ez da kasualitate bat Espainian dauden Paul Cézanne-ren obra bakarrak (bi litografia soilik), Bilboko Arte Eder Museoan gordetzen direnak izatea. Biak Madrid-eko erakusketan agertu ziren, katalogatzearen azkenean, 76 eta 77. laukiak. Biok, Joakin Zuazagoitiak erregalatuak. Bañisten sailekoak dira, 1896-1898. urte bitartean eginak. Kolorezko litografiak dira, biak P. Cézanne-k izenpetuak. Beretarik bigarrenak ehun aleko tirada izan zuen.

Madrid-eko erakusketa hori jartzeko hamalau naziotako museoetatik bilduriko lanez hornitua izan da. Berriz diok, inoiz amesetan ere ez nuela espero Cézanne-ren lan guziok nere begiz ikusteko aukera.

Pintatu pintatze alde aritzeaz bere bizitzako atsegirik handiena ukan zuen Paul Cézanne nork uste hainbeste urteren buruan bestei holako etseginez ikusi ahal izateko aukera emango zigunik? Askok ziren, egunero milakak, bi hilabetez erakusketa bisitatzen zutenak. Guziera ez zion zirrara berdina eragingo, baina abururik hoberenak jaso zituen bere bizitza guzia inork ulertu ezinik igaro zuen artistaren lanak.